

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

GALUA EGUNEKO ZENTROA (START-UPa)

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- II. Kap.: Ekintzailetzarako laguntzak.
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Karrantzako udalerria arreta soziosanitarioko eguneko ekipamendu batez hornitzea; bertan, narriadura fisiko edo kognitiboren bat, desgaitasun sensorialik eta mugikortasun-desgaitasunik duten adinekoek arreta espezializatua jasoko dute, prebentzio- edo errehabilitazio-helburuz.

5.- Inbertsio totala: 70.389,86 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 23.531,00 euro
Finantzatzeko beste iturri batzuk: 46.858,86 euro

7.- Onuraduna:

GALUA EGUNEKO ZENTROA (SOZIJETATE MUGATUA)

- Publikoa
- Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

9.- Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Karrantza Harana, Bizkaia

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Adinekoei eguneko ordutegian laguntza teknikoa eta espezializatua ematea da zerbitzuaren eginkizun nagusia, eguneroko bizitzako jarduerak autonomia handiagoz garatzea izan dezaten.

Erabiltzaileek banakako arreta eta jarraipena eta beharren arabera programatutako jarduerak dituzte eskura. “Eguneko zentroan” izena eman ondotik, Banako Arreta Plana egiten zaie erabiltzaileei, diziplina anitzeko taldeak osasun- zein gizarte-taldeekin eta artatutako pertsonarekin eta haren senideekin edo zaintzaileekin adostuta.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Ekimenak eragin handia izan du udalerrian, eta une honetan, 7 pertsonak gozaten dute zerbitzuaz. Orain arte, zerbitzu horren inguruko eskaintza bakarra Zallan egon da (hau da, 30 kilometrorra, errepide bihurgunetsu batetik joanda), eta, beraz, udalerriko pertsonak oso zail zuten halako zerbitzu batez gozatzeko.